

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN, MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILA

Ikus-entzunezko proiektuak — fikzioa, animazioa, dokumentalak nahiz telesailak — garatu eta ekoizteko eta gidioak idazteko laguntzak emateko deialdi publikoa eta hori arautuko duten berariazko oinarriak. 2021. urtea

2020ko abenduaren 11n onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak Gasteizko Udalaren 2021eko dirulaguntzen deialdiak arautuko dituzten oinarri orokorrak.

2020ko abenduaren 30eko ALHAOn (148. zk) argitaratu ziren oinarri orokor horiek, eta Udalaren webgunean (www.vitoria-gasteiz.org) kontsulta daitezke, baita herritarrei laguntzeko bulegoetan ere. Berariazko deialdi honetara aurkeztu nahi duten pertsona eta entitateek oinarri orokor horietara jo beharko dute jakiteko non eta nola aurkeztu eskabideak, zein betekizun eta betebeharrak izango dituzten eskatzaileek, nola justifikatu behar dituzten dirulaguntzak, zein formulario baliatu behar dituzten eta abar.

2021eko otsailaren 26an egindako bilkuran onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak ikus-entzunezko proiektuak — fikzioa, animazioa, dokumentalak nahiz telesailak — garatu eta ekoizteko eta gidioak idazteko laguntzak emateko deialdi publikoa eta hori arautuko duten berariazko oinarriak. 2021. urtea.

Horrenbestez, oinarri horiek argitara ematen dira, denak jakinaren gainean egon daitezen:

1. oinarria. Dirulaguntzen ildoak

Ikus-entzunezko proiektuak — fikzioa, animazioa, dokumentalak nahiz telesailak — garatu eta ekoizteko nahiz gidioak idazteko laguntzak.

2. oinarria. Deialdiaren xedea

Ikus-entzunezko proiektuak — fikzioa, animazioa, dokumentalak nahiz telesailak — garatu eta ekoizteko eta film luzeen gidioak idazteko laguntza ekonomikoak emateko baldintzak arautzea dute xede oinarri hauek; norgehiagoka baliatuko da horretarako.

Itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak izango dira laguntza ekonomiko horiek.

3. oinarria. Laguntza-modalitateak

Hauek izango dira laguntzen modalitateak:

1. Zinema, telebista eta plataforma digitaletako proiektuak garatzeko laguntzak, oinarri hauetako I. kapituluan adierazten denaren ildotik.
2. Film laburrak ekoizteko laguntzak, oinarri hauetako II. kapituluan adierazten denaren ildotik.
3. Gidoiak idazteko laguntzak, oinarri hauetako III. kapituluan adierazten denaren ildotik.

4. oinarria. Onuradunen betekizunak

1. Enpresaren egoitza eta helbide fiskala Gasteizko udalerrian edukitzea.

2. Zinema- eta telebista-proiektuak garatzeko laguntzei eta film laburrak ekoizteko laguntzei dagokienez (3. oinarriko 3.1 eta 3.2 modalitateak), pertsona fisiko nahiz juridiko pribatu independenteak izan daitezke onuradun, horien ekonomi jardueren gaineko zergaren epigrafea laguntza eskatzen duten jarduerari dagokiona bada. Eskabidea aurkezten denean ez ezik, dirulaguntzaren prozesu osoan ere bete beharko dira betebeharrak — dirulaguntza ematen, obligazioa onartzen nahiz ordaintzen denean —.

Honakoak joko dira pertsona pribatu independentetzat: ikus-entzunezkoen komunikazio- eta zabalkunde-zerbitzuen emaile baten edo telebista-kanal pribatu baten titular baten eragin pean ez dauden pertsona fisiko edo juridikoak, eta aldi berean, eragin menderatzaileak ez dutenak, ez jabetza-arrazoi edo finantza-partaidetzagatik, ezta dagokion administrazio- edo kudeaketa- organoen erabakiak nolabait baldintzatzeko ahalmena izateagatik ere. Ekonomia-intereseko taldeak parekotzat joko dira, taldearen helburu soziala ekoizpen-jarduerak egitea bada, Merkataritza Erregistroko inskripzioaren arabera.

Beste kasu batzuk izan badaitezke ere, eragin menderatzailea dagoela joko da Zinemaren 55/2007 Legearen I. kapituluko 4.n).1 artikuluan deskribatutako zirkunstantzietako edozein gertatzen denean.

3. Orobat, deialdi honen babespean emandako dirulaguntzak subrogatu ahalko dira, diruz laguntzeko prozesuan zehar, entitate onuradunek ekonomia-intereseko talde bat osatzen dutenean eta Merkataritza Erregistroko inskripzioaren arabera haren helburu soziala ekoizpen-jarduerak egitea denean, baldin eta ekonomia-intereseko taldea osatzen duten ekoiztetxe ez-independenteek ez badute taldearen kapital sozialaren ehuneko 20tik gorako portzentajea, zuzenean edo zeharka, hala xedatzen baitu Zinemaren 55/2007 Legearen 4.n).1.2 artikulua.

4. Gidoiak idazteko laguntzei dagokienez (3. oinarriko 3.3 modalitatea), jarduera profesionaltzat gidoiak idaztea duten pertsona fisikoak izan daitezke onuradunak (EJZn horri dagokion epigrafean daudelarik). Eskabidea aurkezten denean ez ezik, dirulaguntzaren prozesu osoan ere bete beharko da betebeharrak — dirulaguntza ematen, obligazioa onartzen nahiz ordaintzen denean —.

5. Nolanahi ere, baztertuta geratzen dira sozietate publikoak eta zuzenbide publikoko entitateak, baita elkarte- edo lanbide-jarduerak egiten dituztenak ere (elkarteak, lanbide elkargoak eta abar).

6. Onuradunek betebeharrak fiskalak, Gizarte Segurantzarekikoak eta Gasteizko Udalarekikoak beteta izan behar dituzte, 58/2004 Foru Dekretuan xedatutakoari jarraiki egiaztatetik salbuetsita badaude izan ezik, bai ematea ebatzi aurretik bai dirulaguntza ordaindu aurretik. Eskabidea aurkezten denean ez ezik, dirulaguntza-eskabidea tramitatzeko prozesu osoan ere bete beharko da betebeharrak — dirulaguntza ematen, obligazioa onartzen nahiz ordaintzen denean —.

7. Laguntza hauek eskuratu ahal izateko ezinbestekoa da administrazio-bidean edo bide penalean zigortua eta laguntza publikoak eskuratzeko aukeratik apartatua ez egotea, ezta horretarako ezgaitzen duen inongo legezko debekuren menpe ere, Gizon eta Emakumeen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen seigarren azken xedapenaren arabera sexu arazoengatik diskriminaziotzat jotzen diren egintzen ondorio direnak barne. Ezingo dira onuradun izan Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluko 2. apartatuan zehaztutako egoeretakoren batean egokitzen diren pertsona eta erakundeak.

8. Bateriaezinak dira proiektuak garatzeko eta gidoiak idazteko modalitateak. Deialdi honen barruan, proiektu bat bi laguntza modalitate horietako bakarrean aurkeztu ahalko da.

9. Eskatzaile bakoitzak hainbat proiektu aurkezteko duen aukera gorabehera (4 gehienez), pertsona edo enpresa onuradun bakoitzeko eta modalitate bakoitzeko proiektu bakarerrako eman ahalko da laguntza. Modalitate berera 2 edo proiektu gehiago aurkeztuz gero, zein proiektuk izango duen lehentasuna adierazi beharko da eskabidea egitean, horien artean hainbanaketarik gertatzen bada ere.

10. Proiektu bera gehienez 3 aldiz aurkeztu ahalko da modalitate berean.

11. Edonola ere, Udalaren aurreko deialdietan dirulaguntza jaso zuten proiektuak ezingo dira aurkeztu onuradun gertatu ziren laguntza modalitate berera, salbu eta onuradunak bera-riaz laguntzari uko egin bazion eta horri zegokion itzulketa egina badu deialdi berria ALHAOn argitaratu aurretik.

5. oinarria. Baliabide ekonomikoak

1. Partida honen kontura finantzatuko dira deialdi honetan aurreikusten diren dirulaguntzak:

2021/08.21.4331.471.02 partida -Sorkuntzarekin eta ikus-entzunezkoekin lotutako industrientzako laguntzak. 100.000,00 euroko zuzkidura du.

3. oinarrian zehaztutako modalitateen artean banatuko da zenbateko guztia, honela:

– Zinema, telebista eta plataforma digitaletarako proiektuak garatzeko laguntzak: 50.000,00 euro.

– Film laburrak ekoizteko laguntzak: 40.000,00 euro.

– Gidoiak idazteko laguntzak: 10.000,00 euro.

2. Dirulaguntzei buruzko Legearen Erregelamenduaren 58. artikuluan ezarritakoaren ildotik, zuzkidura hori handitzerik izango da Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariaren erabaki baten bitartez, baldin eta udal sail horrek enpresei zuzendurik egiten dituen deialdietakoren batean soberako krediturik badago.

3. Proposamenik aurkeztu ez delako edo horiek balioespen-fasean eskatutako gutxieneko puntuazioa lortu ez dutelako modalitate bati esleitutako zuzkidura agortuko ez balitz, soberan geratutako diru-kopurua beste proiektu batzuk finantzatzeko erabil liteke, eskatutako gutxieneko puntuazioa lortu arren dirulaguntzarik (osoa edo zati bat) jaso ez dutenean dagokien modalitateko kreditua agortu delako. Horretarako, itxarote-zerrenda sortuko da, modalitateen arabera, puntuazio handienetik txikienera antolatuta.

4. Halaber, itxarote-zerrenda hartuko da kontuan dirulaguntza jaso duen pertsona fisiko edo juridikoren batek laguntzari uko egiten badio, edo deialdi honetan zehaztutako baldintzak onartzen edo betetzen ez baditu.

5. Horrelakoetan, soberan geratutako kopurua modalitate bereko beste proiektu batzuk finantzatzeko erabiliko da; bestela, beste 2 modalitateetako itxarote-zerrendan dauden proiektuetara bideratuko da.

6. oinarria. Indarrean jartzea eta eskabideak aurkeztea

ALHAOn argitaratzen diren egunaren biharamunean jarriko dira indarrean oinarri hauek —aldeztu aurretik Dirulaguntzen Datu-base Nazionalen laburpen-iragarkia argitaratuko da—.

Deialdia indarrean jartzen delarik zabalduko da eskabideak aurkezteko epea, eta deialdia ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik 20 egun balioduneko epea igarotzen delarik bukatuko.

Pertsona eta entitate interesdunek eskabide bana aurkeztu beharko dute aurkezten diren modalitate bakoitzeko.

Deialdi honen eranskinetako ereduaren arabera aurkeztu behar dira eskabideak.

Eskabide-orriak eta eranskinak Gasteizko Udalaren webgunean egongo dira eskuragarri, eta Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialetako edozeinetan aurkeztu ahalko dira.

Dokumentazioa aurrez aurre (euskarri digitalean) edo egoitza elektronikoan aurkeztu ahalko da:

1. Aurrez aurre: dokumentazioa euskarri digitalean aurkeztu beharko da, nahitaezkoa baita pertsona juridikoentzat eta nortasun juridikorik ez duten entitateentzat, urriaren 1eko 39/2015 Legeak xedatutakoaren arabera.

Proiektu teknikoak, justifikazioak eta gainerako agiriak euskarri digitalean aurkeztu ahalko dira, formatu hauetan: USB memoria, CD, DVD edo antzekoak.

Euskarri horren lehen mailan (euskarriaren erroa) erabat beharrezko diren artxiboak sartuko dira, pdf formatuan; eskatutako gainerako agiriak (doc agiriak, kalkulu-orriak, etab.) dagozkien formatuetan txertatuko dira, eta karpeta esanguratsuetan antolatuko.

Euskarri digitala ez zaio itzuliko entitate eskatzaileari.

2. Egoitza elektronikoa: eskabidea eta gainerako dokumentazioa online erregistratu ahalko da Gasteizko Udalaren erregistro elektronikoa. Horretarako identifikazio-txartel digitala erabili beharko da, https://egoitzelektronikoa.vitoria-gasteiz.org/helbidean_ezarrিতakoari_jarraituz.

Eskabideak aurrez aurre edo bide elektronikoz tramitatzeko moduaren inguruko gainerako xehetasunak Gasteizko Udalaren oinarri orokorretan daude jasota.

7. oinarria. Balioespen-irizpideak, dirulaguntzaren zenbatekoa eta ordainketa

Balioespena egiteko, proiektuak alderatu egingo dira, oinarri hauetan biltzen diren dirulaguntzen modalitateetako bakoitzeko adierazten diren balioespen-irizpideak aintzat harturik (I. kapitulutik III.era bitartean).

Norgehiagoka baliatuko da laguntzak emateko prozedura gisa, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorren 22.1 artikuluan aurreikusitakoaren ildotik; aurkezten diren alderatu egingo dira aurkezten diren proiektuak, haien arteko lehentasun-hurrenkera ezartzeko, eta — modalitate bakoitzean ezarritako dirulaguntzen gehieneko muga errespetatzen delarik — modalitateetako bakoitzeko balioespen-irizpideetara ongien egokitzen diren eskabideek bakarrik jasoko dute laguntza.

8. oinarria. Dirulaguntzak emateko prozedura

Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailari dagokio oinarri hauetan aurreikusten diren laguntzak kudeatzea. Batzorde tekniko bat eratuko da horretarako, honako hauek osatua, Gizon eta Emakumeen berdintasunari buruzko 4/2005 Legearen 3.7 artikuluan xedatutakoari jarraituz:

— Lehendakaria: Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko Enpresen Zerbitzuko burua edo hark ordezkotza izendatzen duena.

— Batzordekideak: deialdiaren xede den alorreko hiru aditu profesional, Gasteizko Udalak izendatuak.

— Idazkari teknikoak: Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko teknikari bat, ahotsa izango duena, baina ez botorik.

Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariaren ebazpena ALHAOn argitaratuz jakinaraziko da balioespen-batzordearen osaera, hura eratu aurretik, interesdun orok errekusatzeko eskubideaz baliatzerik izan dezan legeak ezarritako kasu eta baldintzetan.

Tokiko Gobernu Batzarraren erabakia dela medio eman edo ukatuko dira dirulaguntzak, batzorde teknikoak proposaturik, eskumen hori Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariari eskuordetzeko aukera gorabehera.

Balioespen-batzordeetarako izendatutako aditu profesionalak erantzukizunpeko aitorea aurkeztu beharko dute alderdi hauek zehaztuz: ez daudela Herri Administrazioen

Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 40/2015 Legean aurreikusitako abstentzio-kausetako batean ere, konfidentzialtasuna bermatuko dutela, eta eskatzaileek aurkeztutako dokumentazioa deialdian finkatutako irizpideen arabera proiektuak baloratzeko baino ez dutela erabiliko.

9. oinarria. Ebatzi eta jakinarazteko epea

Gehienez sei hilabeteko epean ebatziko da prozedura, deialdia ALHAOn argitaratzen dene-tik kontatuta. Epe hori berariazko ebazpenik eman gabe igaroz gero, dirulaguntza eskuratzeko eskabidea ezetsizat joko da.

Dirulaguntzak emateko edo ukatzeko ebazpena jakinarazteko komunikabideak ALHAO eta Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoa izango dira.

10. oinarria. Pertsona edo enpresa onuradunen betebeharrak

a. Emandako laguntza onartzea. Hain zuzen ere, hamabost eguneko epean pertsona edo entitate onuradunek laguntzari berariaz uko egiten ez badiote —eman izanaren jakinarazpena jasotzen duten egunetik kontatuta—, onartu egiten dutela ulertuko da.

b. Laguntza zertarako eman zaien, horretarako baliatzea.

c. Proiektuak garatu eta film laburrak ekoizteko laguntzetan, Gasteizen bizilekua edo egoitza duten pertsona fisikoa edo juridikoez egindako lanetara bideratu beharko du onuradunak aurrekontuaren zati bat. Hori eskatzen den laguntza modalitate bakoitzaren oinarrietan zehazten da horretara bideratu beharreko ehunekoak.

d. Dirulaguntza jasotzen duen proiektua deialdira aurkeztu den moduan gauzatzea. Dirulaguntza emateko kontuan hartutako proiektuan funtsezko aldaketarik egin nahi izanez gero, aldeztu idatziz jakinarazi beharko zaio Gasteizko Udalari. Oro har, administrazioak erantzuten ez badu aldaketa ezetsi egin dela ulertu beharko da. Berariazko baimenaren bitartez baino ez da onartuko.

e. Udalaren egiaztatze-ekintzen mende jartzea, baita bertako Kontu-hartzaitza Nagusiarri dagozkion finantza-kontrolerako ekintzen eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren arauetan aurreikusitako mende ere.

f. Gasteizko Udalari jakinaraztea deialdi honetara aurkeztutako gastu berak finantzatzeko bestelako laguntza edo dirulaguntzarik jasoz gero -horien jakinarazpena jaso bezain laster— Estatuko nahiz nazioarteko beste edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuk emana izanik ere. Horretarako dagozkion administrazio edo erakunde publikoaren ebazpen ofiziala aurkeztu behar da.

g. Egokitzat jotzen dituen argibideak eta agiriak eskatu ahalko dizkie Udalak dirulaguntza eskatzen duten pertsona edo entitateei, eskabidea behar bezala balioetsi ahal izateko.

h. Dirulaguntzak jasotzen dituzten pertsona eta entitateek Gasteizko Udalaren laguntza izan dutela azaldu beharko dute, argi eta garbi, lagundutako jardueraren publizitaterako baliatzen dituzten bitarteko edo plataforma guztietan. Era berean, udal-finantzaketaren berri eman beharko dute, baita Gasteizko Udalaren logotipoa jarri ere, lanaren kredituetan eta diruz lagundutako jarduera erakutsi edo zabaltzeko sortzen edo erabiltzen dituzten bitartekoetan.

i. Deialdi honetako laguntza-modalitate bakoitzerako ezarritakoak, eta Gasteizko Udalaren aurrekontuen kontura ematen diren laguntzetarako ezarritako betebeharrak eta baldintza oro.

j. Nolanahi ere, onuradunak jarduera edo proiektua laguntza ematerakoan kontuan hartutako terminoak betez burutu duela justifikatu ondoren ordainduko da dirulaguntza. Deialdiaren oinarrietan ezarritako baldintzak betetzen ez badira, justifikazioa falta bada edo hori nahikoa ez bada, laguntza osoa edo zati bat kobratzeko eskubidea galduko da, eta jasotako zenbatekoak

—gehi dagokion interesa— itzultzeko betebeharra ekar dezake horrek, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 37.1 artikuluan ezarritakoaren ildotik.

11. oinarria. Bestelako dirulaguntzekiko bateragarritasuna

Gasteizko Udalak ematen dituen dirulaguntzak bateragarri izango dira beste administrazio edo entitate publiko nahiz pribatuek ematen dituztenekin, gidoiak idazteko laguntzen modalitatean izan ezik.

Modalitatearen arabera ezarritako mugak gorabehera, dirulaguntzaren zenbatekoak ezingo du gainditu, inolaz ere, dena delako jardueraren kostua, ez berak bakarrik, ez jasotzen den bestelako edozein dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderekina batera.

Gain-finantzaketarik gertatuz gero, murriztu egingo da emandako laguntzaren zenbatekoa, gehieneko mugara arte.

Dirulaguntza jaso dezaketen modalitateak

I. kapitulua

Proiektuak garatzeko laguntzak

12. oinarria. Dirulaguntza jaso dezaketen ekintzak eta gastuak

1. Genero hauetakoren batean sartzen diren zinema, telebista eta plataforma digitaleko proiektuak lagundu ahalko dira diruz, adierazten den gutxieneko iraupena dutelarik:

– Zinemarako lanak:

Fikzioa, animazioa eta sorkuntza-dokumentalak: 60 minutu.

– Telebistarako eta plataforma digitaletarako lanak:

Fikzioa, sorkuntza-dokumentalak eta animazioa (banako proiektuak): 45 minutu.

Fikzioa, sorkuntza-dokumentalak (telesailak): 25 minutu.

– Animazioa (telesailak): 25 minutu.

2. Film laburrak modalitate honetatik kanpo geratzen dira.

3. Ikus-entzunezko ekoizpena prestatu eta diseinatzeko lanak finantzatzea da laguntza hauen xedea, hau da, produkzio-fasearen beraren aurretik egin beharrekoak, eta 2021 eta 2022an egin beharko dira.

4. Hona hemen diruz lagun daitezkeen gastuak:

a. Obraren egile-eskubideak eskuratzea.

b. Gidoia garatzea: berridazketa edo egokitzea, kanpoko aholkularitza eta itzulpena. Jasotzen den dirulaguntzaren ehuneko 20, gutxienez, gidoia garatzeko baliatu beharko da.

c. Promozio-materiala diseinatu eta prestatzea: material inprimatu edo digitala, teaserra, programa pilotua (fikzioa eta/edo animazioa), storyboarda, komunikazio-kanalak (web-orria, sare sozialak...).

d. Marketin- eta banaketa-plana lantzea.

e. Koproduzioko foroetara eta azoketara joatea: joan-etorriak, ostatua eta akreditazioak.

f. Castingak eta kokalekuak bilatzea.

g. Ikerketa dokumentala, grafikoa eta artxibo-bilaketa.

h. Garapena kudeatzeko langile-gastuak (aurrekontuaren ehuneko 15, gehienez).

i. Aurkeztutako proiektuaren aholkularitza juridikoa eta fiskala: aholkularitza eta koproduzio-kontratuak idaztea, aurre-salmentak, obraren gaineko eskubideak, proiektuan parte hartzen duten profesionalen kontratuak eta abar.

j. Gastu orokorrak (aurrekontuaren ehuneko 5, gehienez).

5. Proiektua garatzeko aurrekontuaren ehuneko 30 gutxienez bizilekua edo egoitza Gasteizen duten pertsona fisiko nahiz juridikoek egindako lanetara bideratu behar du onuradunak. Koproduzioen kasuan, onuradunak ikus-entzunezko ekoizpenean duen partaidetza-kuotari aplikatuko zaio ehuneko 30ko portzentaje hori.

Ehuneko hori gastuen zerrenda aurkeztean egiaztatuko da, bigarren ordainketa egin aurretik, aipatutako pertsona fisikoak edo juridikoak Gasteizen bizilekua edo egoitza dutela zehazten duten fakturen eta/edo kontratuen bidez; pertsona fisikoen kasuan, udal-eroldaren bidez egiaztatuko da.

13. oinarria. Eskabideak eta aginduzko dokumentazioa

Modalitate honetan dirulaguntza jasotzeko eskabide-orriari dokumentazio hau erantsi behar zaio:

1. Eskatzaileari dagozkion agiriak.

1.1. Pertsona fisikoak:

a) NANaren fotokopia.

b) Dagokion EJZn alta emanda dagoela egiaztatzen duen agiria.

c) Zinematografia eta Ikus-entzunezkoen Arteen Institutuaren (ICAA) zinema eta ikus-entzunezkoen arloko enpresen erregistroan alta emanda dagoela egiaztatzen duen agiria (I. sekzioa, produkzioa).

1.2. Pertsona juridikoak:

a) IFZren fotokopia.

b) Eratze-eskriturak eta estatutuak (eta gerora izandako aldaketak), baita dagokien erregistro publikoetan izena emanda daudela egiaztatzen duen agiria.

c) Dagokion EJZn alta emanda dagoela egiaztatzen duen agiria

d) Zinematografia eta Ikus-entzunezkoen Arteen Institutuaren (ICAA) zinema eta ikus-entzunezkoen arloko enpresen erregistroan alta emanda dagoela egiaztatzen duen agiria (I. sekzioa, produkzioa).

e) Legezko ordezkariaren NANaren fotokopia eta ordezkaritza-ahalordearen egiaztagiria, dena delako organoak emandako ahalordetza-eskrituraren edo ziurtagiriaren bidez.

2. Proiektuari dagozkion agiriak.

a) Proiektu bererako eskatu edo eskuratutako laguntzen eta horien zenbatekoen erantzukizunpeko aitorpena, I. eranskinaren arabera.

b) Lortutako dirulaguntzei dagozkien ebazpen ofizialen kopia, non jasotako zenbatekoa agertu behar den (I. eranskinean zehaztutako laguntzak).

c) Proiektuaren azalpen-txostena: tratamendua; ikuspegi narratibo, bisual eta artistikoa; pertsonaien deskribapena, etab.

d) Gidoiaren sinopsia.

e) Gidoia edo, halakorik ezean, gidoiaren trataera (gehienez 30 orri). Telesailen kasuan, kapitulu baten gidoi osoa eta gainerako gidoiaren sinopsia.

f) Jatorrizko gidoiaren edo lehendik baden obraren gaineko jabetza intelektualaren eskubideak edukitzearen egiaztapena, Jabetza Intelektualaren Erregistroaren kopiaren bidez, edo, halakorik ezean, eskubideak lagatzeko baldintzak eta egingo den kontratua hitzartuta daudela egiaztatzen duen agiria.

g) Proiektuaren garapenaren aurrekontu xehatu eta partidaz partida banakatua, aurreikusitako gastu guztiak jasotzen dituen, baita diru-sarreraren aurreikuspena ere, II. eranskinean ageri den ereduari jarraiki.

Halakorik bada, koproduktoreak, produktore elkartuak eta banatzaileak bilatzeko plana erantsi.

h) Azalpen-dosierra, non azaldu beharko den proiektua garatzeko aurreikusitako ekintza guztien deskribapen zehatza, finantzaketa eta bideragarritasuna, baita egutegi bat ere, proiektuaren fase ezberdinen plangintza zehaztuta (filmatzen hasteko eta amaitzeko aurreikusitako datak barne).

i) Produkzioaren gutxi gorabeherako aurrekontu globala, Zinematografia eta Ikus-entzunezkoen Arteen Institutuaren (ICAA) eredu ofiziala baliatuz —haren web-orrian eskura daiteke—.

j) Zuzendariaren eta gidoilariaren ibilbide artistiko-profesionala, produkzio-etxearen ibilbidea, eta hurrengo bi urteetako ekoizpen-aurreikuspenak, III. eranskinean ageri den ereduari jarraiki. Zinema jaialdi edo lehiaketetan lortutako sariak egiaztatzeko dokumentazioa, eta he-dabide espezializatueta agertutako kritikak, balioespenean kontuan hartzea nahi izanez gero.

k) Zuzendariak aurretik film luzerik egin ez badu, baina bai film laburrak edo telesailak, kopia hautatuak edo proiektuak ostantatuta dauden web-orrien edo sare sozialen estekak, balioespenean kontuan hartzea nahi izanez gero.

l) Zuzendariak eta gidoilariak garapen-lanak egiteko izenpetutako akordioa.

m) Proiektuen garapenean parte hartuko duten arduradun artistiko eta teknikoek sinatutako erantzukizunpeko aitopenak eta/edo interes-gutunak.

n) Zuzendaritza-, ekoizpen-, gidogintza-, argazki zuzendaritza- eta musika konposizio-lanetan emakumeen presentzia egiaztatzen duten kontratuak, erantzukizunpeko adierazpenak eta/edo interes-gutunak.

ñ) Koprodukzio-kontratuen kopia, halakorik bada, proiektuan parte hartzen duen ekoiztetxe bakoitzaren partaidetza-ehunekoa zehaztuta.

o) Ekoiztetxe eskatzailearen kaudimen ekonomikoaren ziurtagiria.

p) Finantzaketa-maila egiaztatzeari dagokionez, dokumentazio baliozkotzat joko dira, oro har, eskatzailea ez den hirugarren batek egindako agiriak, hala nola:

— Dirulaguntzak emateko ebazpenak, erakunde emaileek egindakoak.

— Transferentzien banku-egiaztagiria, zeinetan berariaz adieraziko baitira jatorriko eta helburuko kontua, agindu-emailea eta onuraduna, zenbatekoa eta kontzeptua. Horiekin batera aurkeztu beharko dira, halaber, kontratua edo operazioaren oinarri den dokumentua, ekarpen propioa izan ezik, kasu horretan nahikoa izango baita ekarpenaren banku-egiaztagiria aurkeztea, adierazitako datuak dituela.

— Banaketarako kontratuak.

— Mailegu polizak.

14. oinarria. Hautatu eta balioesteko irizpideak

1. Jasotako eskabideak aztertuko ditu balioespen-batzordeak, eta zehaztutako alderdietako bakoitza ebaluatuko, ondoren adierazten den baremoa aintzat harturik:

a) Proiektuaren bideragarritasuna (gehienez 30 puntu):

– Aurrekontua proposatutako garapenera egokitzen den: gehienez 10 puntu.

– Finantzaketa-plana ekoizpen-kostuei egokitzen zaien, eta kostuak, proiektuari eta garatzeko aurrekontuari: gehienez 10 puntu.

– Proiektuak koprodukziorako, banaketarako eta estatuan zein nazioartean publikoarengana iristeko duen potentzialtasuna eta bideragarritasuna, koproduktoreak, produktore elkartuak eta banatzaileak bilatzeko plan baten bidez adierazia: gehienez 10 puntu.

b) Gidoiaren kalitatea (gehienez 30 puntu):

– Originaltasuna, sormena eta kalitate literarioa: gehienez 10 puntu.

– Egitura, garapena eta ikuspegi bisuala (animazioan): gehienez 10 puntu.

– Zinemara eramateko bideragarritasuna: gehienez 10 puntu.

c) Proiektuaren interes orokorra (gehienez 10 puntu).

Bereziki balioetsiko dira Gasteiz hiriaren nahiz bertako herritarren errealitate kultural, sozial, linguistiko edo beste edozein arlotakoarekin lotzeko eskaintzen dituen aukerak.

e) Jatorrizko bertsioa euskaraz: gehienez 10 puntu.

Jatorrizko bertsioa euskaraz dela jo ahal izateko — eta 10 puntuak eskuratzeko —, deialdira aurkeztu den tratamenduak edo gidoiak euskaraz idatzia izan beharko du, eta proiektua justifikatzerakoan gidoi osoa euskaraz aurkeztu beharko da.

e) Ekoiztetxearen, zuzendariaren eta gidoigilearen curriculumak: gehienez 10 puntu.

Ekoiztetxearen, zuzendariaren eta gidoigilearen curriculumak. Aldez aurretik egindako lanak hartuko dira kontuan, eta —egindako proiektuen kopurua baino gehiago— jaialdietan lortutako sariak, baita komunikabide espezializatuetan agertutako kritikak ere.

f) Emakumeen parte-hartzea hainbat zereginetan (zuzendaritza, ekoizpena, gidoigintza, argazki-zuzendaritza eta musika konposizioa): gehienez 10 puntu.

– Zuzendaria emakumea bada: 3 puntu.

– Produktore exekutiboa emakumea bada: 3 puntu.

– Gidoilaria emakumea bada: 2 puntu.

– Argazkilaritza zuzendaria emakumea bada: 2 puntu.

Proiektuak zuzendari, ekoizle edo egile bat baino gehiago baditu, parte hartzen dutenen artean dauden emakumeen kopuruaren proportzioan emango da puntuazioa.

2. Aurkeztutako proiektuak dirulaguntza jasotzerik izan dezan, gutxienez 50 puntu eskuratu beharko ditu, adierazitako irizpide eta puntuazioen arabera.

Eskatzaileek aurkeztutako dokumentazioa izango da balioespenaren funtsa, eta balioespen-batzordeak horiek egiaztatu eta alderatu ahalko ditu.

15. oinarria. Proiektuak balioestea eta dirulaguntzaren zenbatekoa

1. Diruz lagun daitezkeen gastuen ehuneko 50eko dirulaguntza emango da gehienez, 10.000,00 euroko muga delarik (12.4 oinarrian adierazi da zein gastu lagun daitezkeen).

2. Proiektua garatzera bideratutako aurrekontua ez da izango ekoizpen guztiaren aurrekontuaren ehuneko 20 baino gehiago.

3. Laguntza koproduzio baterako eskatzen delarik, eskatzaileak gutxienez bukaerako produkzioaren ehuneko 20ko partaidetza izan behar du, eta Gasteizko Udalaren dirulaguntza inolaz ere ezingo da izan ekoizlearen benetako partaidetzaren ehuneko 50etik gorakoa.

4. Bestelako dirulaguntza publikorik jasoz gero, guztien batura —deialdi honetakoak barne— ezingo da izan proiektua garatzeko kostearen ehuneko 50etik gorakoa.

5. Berdinketa egokituz gero, eta puntuazio bera duten eskabide guztiei erantzuteko aski aurrekontu-krediturik ez badago, 14.1. oinarriko a) atalean lortutako puntuazioa hartuko da aintzat bata edo bestea lehenesteko. Berdinketak jarraituz gero, oinarri bereko b) atalean lortutako puntuazioa hartuko da aintzat, eta horrela jokatuko da hurrenez hurren gaienerako atalekin.

6. Laguntza jaso dezaketen proiektuen arteko azkenari dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa ematerik ez dagoenean zuzkidura ez delako nahikoa, ematen zaion dirulaguntza erabilgarri dagoen zenbatekoa baino ez da izango, eta itxarote-zerrendan geratuko da gehieneko kopurua jaso ahal izateko.

16. oinarria. Laguntza ordaintzea eta justifikatzea

1. Honela tramitatuko da proiektuak garatzeko ematen diren laguntzen ordaintzea:

Laguntza ematen delarik, laguntzaren ehuneko 80a ordainduko da.

Gainerako ehuneko 20a, dokumentazio hau jasotzen denean, eta, nolahi ere, 2022ko urriaren 31rako (egun hori barne):

— Proiektua garatzeko egindako jardueren eta lortutako emaitzen txostena.

— Behin betiko aurrekontua, Zinematografia eta Ikus-entzunezkoen Arteen Institutuaren (ICAA) eredu ofiziala baliatuz —haren web-orrian eskura daiteke—.

— Garapen-gastuen zerrenda sailkatua, BEZik gabe, alderdi hauek zehaztuta: hartzekoduna eta agiria, zenbatekoa, jaulkipen-data eta, egin bada, ordaintetaren data. Horretan berariaz zehaztu beharko da Gasteizko pertsona fisiko edo juridikoetan egindako gastua, V. eranskinaren arabera (Excel).

— Egindako gastuen justifikazioa, behar bezala egiaztatuta jatorrizko fakturak edo kopia erkatuak eta ordaintetak justifikatzen dituzten agiriak aurkeztuz. Koproduzioko foroetara eta azoketara joateko gastuak (ostatua, joan-etorriak edo akreditazioak) badira, zein ekitalditara joan den justifikatzeko dokumentazioa. Ordainagiriari onartutako badira, xedeak eta datak laguntza jaso den urtearen eta diruz lagundu daitekeen epearen barruan (2021-2022) egon beharko dute.

— Gidoi osoa, zuzenduta.

— Gidoigilearekin edo gidoigileekin eskubideak lagatzeko sinatutako kontratua —gutxienez bi urterako—, edo garatu nahi den obraren gaineko eskubideak erosteko aukera ematen duen kontratua —gutxienez bi urterako—.

— Lan-egitasmoaren banakatze eta egutegi berria.

— Filmatzeko agertokien argazki eta agiri dosierra.

— Behin behineko casting-proposamenak.

— Finantzaketa-plan xehatua.

— Marketin- eta banaketa-plan xehatua.

— Argitaratutako promozio-material ororen ale bana (paperean, euskarri digitalean edo teaser formatuan, halakorik bada), eta/edo promozio-eduki digitalak barne hartzen dituzten web-orriekiko estekak.

2. Gainera, bigarren ordainketa egin dadin, 12.5 eta 15.3. oinarrietan ezarritako baldintzak bete dituela egiaztatu beharko du pertsona edo entitate onuradunak.

3. Laguntzaren justifikazioa laguntza eskuratzeko kontuan hartu den aurrekontuaren ehuneko 75era iristen ez bada, proportzionalki gutxituko da, eta ehuneko 75 hori izango da diru-laguntza kalkulatzeko oinarri berria, 15.1 oinarria aplikatzea gora behera.

4. Deialdiaren 10. oinarrian ezarritako betebeharrak betetzen ez badira, justifikazioa falta bada edo hori nahikoa ez bada, laguntza itzultzeko eskatuko da, 10.j) atalean ezarritako moduan.

II. kapitulua

Film laburrak ekoizteko laguntzak

17. oinarria. Laguntza jaso dezaketen jarduerak

1. Edozein hizkuntzatan ekoiztutako zinema-film luzeetarako emango dira laguntzak, kapitulu honetan adierazten denaren ildotik.

2. Horri dagokionez, 60 minuturainoko luzera duten eta edozein euskarritan egindako filmak joko dira film laburtzat, 30 minututik beherako iraupena gomendatzen delarik.

3. Ikus-entzunezkoaren ekoizpenerako aurrekontuaren gutxienez ehuneko 30 bizilekua edo egoitza Gasteizen duten pertsona fisiko nahiz juridikoek egindako lanetara bideratu behar du onuradunak. Koprodukzioen kasuan, onuradunak ikus-entzunezko ekoizpenean duen partaidetza-kuotari aplikatuko zaio ehuneko 30ko portzentaje hori.

4. Ezingo dute laguntza hau jaso deialdi hau argitaratu aurretik jaialdien zirkuituan, telebistan edo plataforma digitaletan estreinatutako obrek, ezta filmaketa eta postprodukzio-fasea amaitua dutenek ere.

18. oinarria. Eskabideak eta aginduzko dokumentazioa

Dirulaguntza jasotzeko eskabideari dokumentazio hau erantsi beharko zaio:

1. Eskatzaileari dagozkion agiriak.

1.1. Pertsona fisikoa:

a) NANaren fotokopia.

b) Dagokion EJZn alta emanda dagoela egiaztatzen duen agiria.

c) Zinematografia eta Ikus-entzunezkoen Arteen Institutuaren (ICAA) zinema eta ikus-entzunezkoen arloko enpresen erregistroan alta emanda dagoela egiaztatzen duen agiria (I. sekzioa, produkzioa).

1.2. Pertsona juridikoa:

a) IFZren fotokopia.

b) Eratze-eskiriturak eta estatutuak (eta gerora izandako aldaketak), baita dagokien erregistro publikoetan izena emanda daudela egiaztatzen duen agiria.

c) Dagokion EJZn alta emanda dagoela egiaztatzen duen agiria.

d) Zinematografia eta Ikus-entzunezkoen Arteen Institutuaren (ICAA) zinema eta ikus-entzunezkoen arloko enpresen erregistroan alta emanda dagoela egiaztatzen duen agiria (I. sekzioa, produkzioa).

e) Legezko ordezkariaren NANaren fotokopia eta ordezkaritza-ahalordearen egiaztagiria, dena delako organoak emandako ahalordetza-eskirituren edo ziurtagiriaren bidez.

2. Proiektuari dagozkion agiriak.

a) Proiektu bererako eskatu edo eskuratutako laguntzen eta horien zenbatekoen deklarazioa, I. eranskinaren arabera.

b) Lortutako dirulaguntzei dagozkien ebazpen ofizialen kopia, non jasotako zenbatekoa agertu behar den (I. eranskinean zehaztutako laguntzak).

c) Proiektuaren oroitidazkia.

d) Gidoiaren sinopsia.

e) Gidoia.

f) Jatorrizko gidoiaren edo lehendik baden obraren gaineko jabetza intelektualaren eskubi-deak edukitzearen egiaztapena, Jabetza Intelektualaren Erregistroaren kopiaren bidez, edo, halakorik ezean, eskubideak lagatzeko baldintzak eta egingo den kontratua hitzartuta daudela egiaztatzen duen agiria.

g) Proiektuaren aurrekontu xehatua, partidatan banatuta, Zinematografia eta Ikus-entzunezkoen Arteen Institutuaren (ICAA) eredu ofizialaren edo antzekoen arabera.

h) Ekoizpen plana, aurreikusitako egutegia eta filmaketarako plana —edo animazio prozesua, kasua bada—, denbora eta lekuak zehaztuz. Berariaz adierazi behar da Gasteizen filmatuko den egun kopurua. Animazio proiektua bada, egitekoa den animazio estudioaren izena, helbidea eta IFZ.

i) Finantzaketa-plana, IV. eranskineko ereduaren arabera, ekoiztetxearen ekarpena eta gainerrako ekarpenen ehunekoa zehaztuta. Kaudimen ekonomikoaren ziurtagiria erantsi beharko da.

j) Fitxa tekniko eta artistikoarekin batera, kontratuak aurkeztu beharko dira edo, horrelakorik ez bada, proiektuen garapenean parte hartuko duten arduradun artistiko eta teknikoek sinatutako erantzukizunpeko aitopenen edo interes-gutunak, Gasteizen bizilekua dutela adierazita, kasua bada.

k) Zuzendariaren, gidoigilearen eta produktorearen ibilbide profesionala, III. eranskinean emandako ereduari jarraiki.

l) Proiekturako proposatutako zuzendariaren idatzizko onespina.

m) Zuzendaritza-, ekoizpen-, gidoigintza-, argazki zuzendaritza- eta musika konposizio-lanetan emakumeen presentzia egiaztatzen duten kontratuak, erantzukizunpeko adierazpenak edo interes-gutunak.

n) Koprodukzio-kontratuen kopia erkatuak, halakorik bada, proiektuan parte hartzen duen ekoiztetxe bakoitzaren partaidetza-ehunekoa zehaztuta.

ñ) Iraunkortasun plan estrategikoa: lan-dosierra edo -plana, proiektuan iraunkortasun-irizpideei egokitzeko ezarri beharreko ekintzak jasotzen dituena.

Ikus-entzunezko proiektuek badute jardunbide egokien gida bat eskura, zeina plan hori lantzeko oinarritzat baliatu baitezakete; iraunkortasun-parametroak betetzeko prozedurak jaso beharko ditu planak, proiektuen ingurumen-inpaktua minimizatzearen.

Helbide hauetan dago eskuragarri aipatutako informazioa: <http://v-g.eus/sostenibilidad> eta <http://v-g.eus/jasangarritasuna>.

Balioesteko aurkezten den agiri oro laguntzaren helburu den proiektuarekin lotutakoa izango da nahitaez.

19. oinarria. Hautatu eta balioesteko irizpideak

1. Jasotako eskabideak aztertuko ditu balioespen-batzordeak, eta zehaztutako alderdietako bakoitza ebaluatuko, ondoren adierazten den baremoa aintzat harturik:

a) Proiektuaren interes orokorra: gehienez 38 puntu.

– Garatu nahi den gidoiaren originaltasuna, sormena eta kalitate literarioa: gehienez 20 puntu.

– Egitura, garapena eta ikuspegi bisuala (animazioan): gehienez 10 puntu.

– Proiektuaren interes orokorra: bereziki baloratuko da zein aukera eskaintzen dituen ekimen artistiko berrietarako, eta zein lotura duen Gasteizko nahiz bertako herritarren errealitate kultural, sozial eta linguistikoarekin edo beste edozein arlotakoarekin: gehienez 8 puntu.

a) Proiektuaren bideragarritasuna (gehienez 20 puntu):

– Aurrekontua eta ekoizpen-plana proiektuaren ezaugarrietara egokitzea: gehienez 10 puntu.

– Finantzaketa-plana: bereziki kontuan hartuko dira eskabidea egiten duen ekoizpen-etxearen enpresa-arriskua; autofinantzaketaren edo finantzaketa pribatuaren zenbatekoa, eta, koprodukzioen kasuan, euskal ekoiztetxeen partaidetza-ehunekoa: gehienez 10 puntu.

c) Proiektuak Gasteizko ekosistemarekin duen lotura: gehienez 20 puntu.

– Inplikaturako Gasteizko enpresa- eta giza-baliabideak: gehienez 10 puntu.

Gasteizen bizilekua edo egoitza duten profesionalak eskaintzen dituzten baliabideak (sorkuntza-baliabideak nahiz baliabide artistiko eta teknikoak) kontratatzeko egiten den inbertsioaren ehunekoa —proiektuaren aurrekontu osoaren gainean— kontuan harturik emango dira.

Ehuneko hori IV. eranskinean adierazi behar da, eta balioespenean kontuan hartzerik izan dadin, ehuneko hori behar bezala egiaztatuko da, erantzukizunpeko adierazpenen eta/edo interes-gutunaren bidez.

– Filmaketa edo animazio-prozesua Gasteizen egitea: gehienez 10 puntu.

Filmatze-lanen iraupen osoaren aldean Gasteizen filmatzen egiten diren egunak kontuan hartuta emango dira. Animaziozko lanen kasuan, filmatze-egunak animazio-estudioan emandako egunekin parekatuko dira, eta Gasteizen egindakotzat joko da animazio-estudioak egoitza sozial eta fiskala hirian badu.

d) Jatorrizko bertsioa euskaraz: gehienez 7 puntu.

Halakotzat jotzeko gidoia euskaraz aurkeztu beharko da.

Euskal Autonomia Erkidegoko zinema aretoetan, zine-jaialdietan eta ikus-entzunezkoen erakustaldietan filma ematen den guztietan euskaraz izan beharko du, hainbat hizkuntzatan azpitoluak jarrita nahi bada.

e) Emakumeen parte-hartzea hainbat zereginetan (zuzendaritza, ekoizpena, gidoigintza, argazki-zuzendaritza eta musika konposizioa): gehienez 7 puntu.

– Zuzendaria emakumea bada: 2 puntu.

– Produktore exekutiboa emakumea bada: 2 puntu.

– Gidoilaria emakumea bada: 2 puntu.

– Argazkilaritza zuzendaria emakumea bada: puntu bat.

Proiektuak zuzendari, ekoizle edo egile bat baino gehiago baditu, parte hartzen dutenen artean dauden emakumeen kopuruaren proportzioan emango da puntuazioa.

f) Ekoiztetxearen, zuzendariaren, gidoigilearen eta produktorearen ibilbide profesionala: gehienez 6 puntu.

Ekoiztetxearen, zuzendariaren, gidoigilearen eta produktorearen curriculum eta ibilbideak. Aldez aurretik egindako lanak hartuko dira kontuan, eta —egindako proiektuen kopurua baino gehiago— jaialdian lortutako sariak, baita komunikabide espezializatuetan agertutako kritikak ere.

g) Iraunkortasun-plana: gehienez 2 puntu.

Kontuan hartuko da garatu beharreko ekintzek iraunkortasun-irizpideei jarraitzen dietela, eta proiektuaren errealitatearekin eta ezaugarriekin bat datozela, bai garapen fasean bai produkzio fasean.

2. Aurkeztutako proiektuak dirulaguntza jasotzerik izan dezan, gutxienez 50 puntu eskuratu beharko ditu, adierazitako irizpide eta puntuazioen arabera.

3. Eskatzaileek aurkeztutako dokumentazioa izango da balioespenaren funtsa, eta balioespen-batzordeak zein idazkari teknikoak egiaztatu eta alderatu ahalko du.

20. oinarria. Proiektuak balioestea eta dirulaguntzaren zenbatekoa

1. Dirulaguntzak ezingo du diruz lagun daitekeen aurrekontuaren ehuneko 85 gainditu, eta gehienez 10.000,00 euro emango dira proiektu bakoitzeko.

2. Laguntza koprodukzio baterako eskatzen delarik, koprodukzio-kontratuaren kopia erkatua aurkeztu beharko da, eta Gasteizko Udalaren dirulaguntza inolaz ere ezingo da izan eskabidea egiten duen ekoizlearen benetako partaidetzaren ehuneko 50etik gorakoa. Eskabidea aurkeztu duen ekoizleak bukaerako produkzioaren ehuneko 20 izan beharko du gutxienez; deialdi honen onuradun izan daitezkeen koproduttore multzoen kasuan, berriz, horietako bakoitzaren partaidetzaren batura.

3. Bestelako dirulaguntza publikorik jasoz gero, guztien batura —deialdi honetakoak barne— ezingo da izan proiektua garatzeko kostearen ehuneko 85etik gorakoa. Abenduaren 9ko 1090/2020 Errege Dekretuan —abenduaren 4ko 1084/2015 Errege Dekretua aldatzen du hori, zeinak Zinemaren abenduaren 28ko 55/2007 Legea garatu baitzuen—, film laburrak “ikus-entzunezko obra zailtzat” hartzen dira, eta horrenbestez, aitortutako kostuaren ehuneko 85erainoko laguntza publikoak jaso ahalko dituzte.

Gain-finantzaketarik gertatuz gero, murriztu egingo da emandako laguntzaren zenbatekoa, gehieneko mugara arte.

4. Diruz laguntzeko gastuak izango dira abenduaren 18ko ECD/2784/2015 Aginduak —film laburren eta luzeen kostuaren eta ekoizlearen inbertsioaren aitorpena arautzen du— 2. artikuluan aurreikusitako ekoizpen-kostuak.

5. Berdinketa egokituz gero, eta puntuazio bera duten eskabide guztiei erantzuteko aski aurrekontu-krediturik ez badago, 19. oinarriko a) atalean lortutako puntuazioa hartuko da aintzat bata edo bestea lehenesteko. Berdinketak jarraituz gero, oinarri bereko b) atalean lortutako puntuazioa hartuko da aintzat, eta horrela jokatu da hurrenez hurren gaienerako atalekin.

6. Laguntza jaso dezaketen proiektuen arteko azkenari dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa ematerik ez dagoenean zuzkidura ez delako nahikoa, ematen zaion dirulaguntza erabilgarri dagoen zenbatekoa baino ez da izango, eta itxarote-zerrendan geratuko da gehieneko kopurua jaso ahal izateko.

21. oinarria. Gauzatzeko epeak

1. Laguntza eman zaiola jakinarazten zaionetik, 2022ko urriaren 31ra arteko epea izango du onuradunak produkzioa bukatzeko (egun hori barne), lehen kopia estandarra lortzea barne, eta justifikatzeko eskatutako agiri guztiak bidaltzeko.

2. Filmatzen hasteko eta amaitzeko datak Gasteizko udalaren laguntzak kudeatzen dituen organoari jakinaraziko zaizkio, filmatzen hasi baino gutxienez 10 egun lehenago, eta bukatzen denetik 20 egun igaro aurretik.

22. oinarria. Laguntza ordaintzea eta justifikatzea

1. Laguntza ematen delarik, lehen ordainketa bat egingo da, ehuneko 80koa.

2. Gainerako ehuneko 20a film laburraren ekoizpena bukatzen denean ordainduko da, Gasteizko Udalaren Erregistro Nagusian jarraian zehazten den dokumentazioa aurkeztu ondoren; 2022ko urriaren 31n (egun hori barne) amaituko da aurkezteko epea.

a) Obraren kopia bat (Digital Cinema Package (DCP) formatuan, USB edo DVD batean) estreinatutako bertsio komertzial bakoitzeko, eta bikoiztu den hizkuntzetako bakoitzean. Pressbooka edo proiektuaren promozio-dokumentazioa ostatatuta dagoen webgunerako estekak (halakorik bada). Gutxienez bi kartel eta sei argazki (fotogramak eta argazki finkoa), eta spot, trailer eta making of-en kopia DVD formatuan. Halaber, ekoiztetxeak obra sustatzeko duen edozein dokumentazio, Gasteizko Udalaren film-ondarea gorde eta zabalkundea emateko interesgarri bada —inolaz ere ez zaie erabilera komertzialik emango horiei—.

b) Egindako gastuen justifikazioa, behar bezala egiaztatua —jatorrizko fakturak edo kopia erkatuak—, eta ordainketak justifikatzen dituzten agiriak. Honako hauek egiaztatzen dituzten faktura eta kontratuak: produktoreen benetako ekarpenak eta horiek ekoizpenaren gainean dituzten titulartasun-kuotak, eta laguntza-eskabidearekin batera aurkeztutako dokumentazioan adierazi den Gasteizko enpresa- eta giza baliabideen ehuneko osoa bete izana. Gastu horien zerrenda V. eranskinean (edo antzekoan) jaso behar da.

c) Kontratu, udal-errola edo faktura bidez egiaztatzea 17.3 oinarrian ezarritakoa bete dela.

3. Laguntzaren justifikazioa laguntza eskuratzeko kontuan hartu den aurrekontuaren ehuneko 75era iristen ez bada, proportzionalki gutxituko da, eta ehuneko 75 hori izango da dirulaguntza kalkulatzeko oinarri berria, 20.1 oinarria aplikatzea gora behera.

4. Deialdiaren 10. oinarrian ezarritako betekizunak betetzen ez badira, justifikazioa falta bada edo hori nahikoa ez bada, laguntza itzultzeko eskatuko da, 10.j) atalean ezarritako moduan.

III. kapitulua

Gidoiak idazteko laguntzak

23. oinarria. Diruz lagundu daitezkeen ekintzak

Modalitate honen barruan, fikzio- nahiz animazio-gidoi zinematografikoen sorkuntzarako emango dira laguntzak, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan idatziak.

Ez dute laguntza jasotzeko aukerarik izango dagoeneko guztiz garatuta dauden gidoiek, eta gidoi-tratamendu bakarra aurkeztu ahalko da.

24. oinarria. Eskabideak eta aginduzko dokumentazioa

1. Deialdi honen 1. eranskineko ereduaren arabera aurkeztu behar dira eskabideak. Eskabidea berezita aurkeztuko da, gutun-azalak/USBak/CDak eta/edo artxibo digitalak aurkeztean.

2. Dokumentazio formatu hauetan aurkeztu ahalko da:

2.1. Paperezko dokumentazioa: identifikazio-goiburu bera duten bi gutun-azal aurkeztu behar dira, A eta B letren bidez behar bezala berezita.

2.2. Euskarri digitaleko dokumentazioa: euskarri digitalean ere aurkez daitezke agiriak (USB edo CD). Horietako bakoitzak identifikazio-goiburu bera eramango du, eta USBak/CDak A eta B letren bidez bereziko dira.

2.3. Egoitza elektronikoa: Dokumentazioa erregistro berean kargatuko da.

– A erreferentziarekin aurkeztu den dokumentazioan, proiektuaren izenburua eta zein atali dagokion (sinopsia, oroitidazkia, etab.) baino ez da zehaztuko. Agirien barruan ez da gidoigilearen inolako aipamenik egingo.

Aipamenik agertuz gero, proiektua deialditik kanpo geratuko da.

– B erreferentziari dagokio dokumentazioa pdf bakarrean aurkeztuko da, “B dokumentazioa” izenarekin.

3. Aurkeztu beharreko agiriak:

3.1. A gutun-azala/A USBa/A CDa/erregistroa.

Identifikazio-goiburua idatzi beharko da gutun-azal/USB/CD/erregistroaren kanpoaldean, eta ez barruan ez kanpoan ez da agertu beharko egilearen izena. Barruan, dokumentazio hau sartu beharko da:

a) Gidoi-proiektuaren argumentuaren laburpena, 1-3 orrialdekoa.

b) Gidoi-proiektuaren tratamendua, sekuentziaz sekuentzia, 15-30 orrialdekoa.

c) Elkarrizketa-sekuentzia, 3-5 orrialdekoa.

d) Gidoigilearen proiektuaren azalpen-memoria, non azaldu beharko den proiektuaren interesa eta ematea espero den izaera, 1-3 orrialdekoa.

B gutun-azala /B USBa/B CDa.

B gutun-azal/USB/CD edo erregistroren kanpoaldean, A gutun-azaleko identifikazio-goiburu bera idatzi beharko da. Barruan dokumentazio hau sartu beharko da:

a) NANaren fotokopia.

b) Gidoigileen jarduera profesionalari dagokion EJZren epigrafean alta emanda dagoela egiaztatzen duen agiriaren kopia.

c) Gidoigilearen ibilbide artistikoa.

d) Erantzukizunpeko adierazpena (VI. eranskina), alderdi hauek zehaztuz:

– Zinema-areto komertzialetan erakusteko kalifikatuta dagoen film luzeren batean gidoigile gisa ageri dela, filmen izenburuak eta ekoizpen urteak adierazita. Halaber, zine gidoiak Jabetza Intelektualaren Erregistroan bere izenean erregistratuta daudela egiaztatzen duen dokumentazioa.

– Ez duela beste edozein administrazio publiko edo erakunde pribatuk xede bererako emandako laguntzarik jasotzen.

– Aurkeztutako tratamendua orijinala eta orain arte horrela garatu gabea dela.

e) Jabetza Intelektualaren Erregistroan kalifikatu eta erregistratutako film laburren gidoigile gisa ageri dela egiaztatzeko agiriak, eta film labur horiek estatuko zein nazioarteko jaialdietan lortutako sariak egiaztatzeko agiriak.

f) Aurkeztutako proiektuak gidoi egokitu bat idazteko tratamendua bada, lehenagotik dagoen obraren eskubidea duenaren berriazko baimena duela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu behar da.

A gutun-azaleko gidoi-proiektuak kalifikatu ondoren —egileen izenak jakin gabe—, balioesteko batzordeak B gutun-azalak irekiko ditu, eta egileen eta horien ibilbideen inguruko guztia balioetsiko.

25. oinarria. Hautatu eta balioesteko irizpideak

Modalitate honetako eskabideak bi fasetan balioetsiko dira, ondoren adierazten diren irizpen eta baremo hauei jarraiki. Proiektua bigarren fasera igaro dadin gutxienez 45 lortu beharko ditu lehen fasean:

1. Lehen fasea: gidoi-proiektuaren balioespena (gehienez 85 puntu).

a) Aurkeztutako proiektuaren tratamenduaren originaltasuna eta kalitatea: gehienez 50 puntu.

b) Proiektuaren interesa: bereziki balioetsiko dira proiektuaren bideragarritasuna eta gauzatzeko benetako aukera, interes tematikoa eta geografikoa. 20 puntu.

c) Euskaraz idatzita egotea: gehienez 10 puntu.

Gidoi-tratamendua euskaraz delako 10 puntuak lortzen badira, euskarazko gidoi osoa aurkeztu beharko da justifikatzeko garaian. Salbuespenez, euskarazko gidoitzat onartuko dira gutxienez edukiaren ehuneko 80an euskaraz idatzitako lanak.

d) Proiektuan genero-ikuspegia txertatzea: gehienez 5 puntu.

2. Bigarren fasea: Gidoigilearen balioespena: gehienez 15 puntu.

a. Emakume batek idatzia izatea: gehienez 5 puntu.

b. Dirulaguntzaren xedearekin lotutako ibilbide profesionala: gehienez 4 puntu.

c. Aurreko lanak: gehienez 4 puntu.

– 2 puntu emango dira zinema-areto komertzialetan erakusteko kalifikatuta dauden film luzeetan eskatzailea gidoigile gisa ageri den film bakoitzeko; filmen izenburuak adierazi behar dira, eta egiaztagiria aurkeztu: gehienez 4 puntu.

– Era berean, 0,50 puntu emango dira eskatzailea gidoigile gisa ageri den eta alorreko jaialdiaren batean saria jaso duen film labur bakoitzeko: gehienez 2 puntu. Dagokion dokumentazioa erantsiko dira.

d. 2 puntu 30 urtetik beherako gidoigileentzat, baldin eta zinema-aretoetan erakusteko kalifikatuta dagoen film luzeren batean gidoigile gisa agertzen ez badira.

Aurkeztutako proiektuak dirulaguntza jasotzerik izan dezan, gutxienez 50 puntu eskuratu beharko ditu adierazitako irizpide eta puntuazioen arabera; puntuazio horretara iristen ez direnak kanpoan utziko dira.

26. oinarria. Proiektuak balioestea eta dirulaguntzaren zenbatekoa

Balioespena egiteko, proiektuak alderatu egingo dira, aurreko oinarrian adierazi diren balioespen-irizpideak aintzat harturik alderatu ere.

1. Dirulaguntza 5.000,00 eurokoa izango da proiektu bakoitzeko.

2. Modalitate honetan aurreikusten diren laguntzak ez dira helburu berarekin beste edozein erakunde publiko edo pribatuk ematen dituenekin bateragarri.

27. oinarria. Laguntza ordaintzea eta justifikatzea.

a) Dirulaguntzaren ehuneko 50 esleipenaren ebazpena ematen delarik ordainduko da.

b) Gainerako ehuneko 50a laguntzak kudeatzen dituen zuzendaritzara diruz lagundutako sorkuntza eta jarraian adierazten den dokumentazioa bidalitakoan ordainduko da; 2022ko urriaren 31n (egun hori barne) amaituko da aurkezteko epea.

– Behin betiko gidoiaren ale bat, deialdian onartutako formatuetako edozeinetan (paperean edo pdf formatu digitalean), eta aurkeztu zen hizkuntzan.

– Lanaren Jabego Intelektualaren Erregistroko inskripzioaren kopia, zeinean lanaren izenburutzat agertu beharko du aurkeztutako gidoi osoaren izenburu bera.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko martxoaren 1ean

Administrazio Zerbitzuko burua
LUCIO CRUCELEGUI JÁUREGUI

Eskabide-orria

<https://www.vitoria-gasteiz.org/docs/wb021/contenidosEstaticos/adjuntos/eu/60/93/76093.pdf>

I. eranskina: Bestelako dirulaguntzen deklarazioa

<https://www.vitoria-gasteiz.org/docs/wb021/contenidosEstaticos/adjuntos/eu/60/87/76087.pdf>

II. eranskina: Proiektua garatzeko aurrekontua

<https://www.vitoria-gasteiz.org/docs/wb021/contenidosEstaticos/adjuntos/eu/60/88/76088.pdf>

III. eranskina: Ekoiztetxearen, zuzendariaren eta gidogilearen ibilbidea

<https://www.vitoria-gasteiz.org/docs/wb021/contenidosEstaticos/adjuntos/eu/60/89/76089.pdf>

IV. Eranskina: Finantzaketa-plana

<https://www.vitoria-gasteiz.org/docs/wb021/contenidosEstaticos/adjuntos/eu/60/90/76090.pdf>

V. eranskina. Gastuen zerrenda sailkatua

<https://www.vitoria-gasteiz.org/docs/wb021/contenidosEstaticos/adjuntos/eu/45/38/84538.xls>

VI. eranskina: Erantzukizunpeko aitortpena

<https://www.vitoria-gasteiz.org/docs/wb021/contenidosEstaticos/adjuntos/eu/45/37/84537.pdf>